

IRAKASLEEN PRESTAKUNTZA PLANA - LAN HARREMAN ETA GIZARTE LANGINTZA FAKULTATEA 2019-2021

Irakasleen etengabeko prestakuntza funtsezko faktorea da beren lanbide jarduna garatzeko; izan ere, gaitasuna ematen die kalitatezko irakaskuntzan jarduteko, gure gizartearen beharrei erantzungo dieten ikerketa proiektuak egiteko, eta ikuspegi berritzaileari eta etengabeko hobekuntzari eutsiz kudeatzeko.

Hori dela eta, irakasleen prestakuntzarako plan hau talde horren prestakuntza beharrak betetzera bideratu da, horrela, ikasleen eginkizun akademikoak, ikertzaileak eta kudeaketakoak hobetzeko, eta, ondorioz, ikasleen errendimendu akademikoa hobetzeko.

Plan hau diseinatzeko, aldez aurretik egindako bi txostenek hartu dira oinarri, honako hauek identifikatzeko: proposatutako helburuak, prestakuntza ereduak, konpromisoak, eskuragarri dauden baliabideak, prestakuntza ardatzak eta egiaztagiri sistema.

Iraungarritasuna ere kontuan hartu da, hau da, gure implementazio gaitasunera egokitzea eta bideragarria izatea. Hori guztia ondorengo gaien inguruan sortutako ekimen guztiak aintzat hartzeko daukagun konpromisoaren erakusle da. Gaiak hauek dira:

- a. Ikasgelako praktiken arloko berrikuntzak eta hobekuntzak
- b. Zientziaren arloko ekarpenak areagotzea
- c. Kalitatearen kudeaketarako eta antolaketarako sistemak garatzea.

1.- Planaren helburuak

- 1.1. Hezkuntzaren kalitatea hobetzea.
- 1.2. Ikastegiko irakasleek prestakuntzaren arloan dituzten premiak ezagutzea.
- 1.3. Ikastegiko irakasleen ikerketa funtzioa ezagutzea, irakasleen artean sinergiak ezarri ahal izateko eta elkarri laguntza ematea eta ezagutzaren eta esperientzien trukea sustatzeko.
- 1.4. Irakasleei mugikortasun programetan laguntzea, irakaskuntza, ikerketa eta dibulgazio gaitasuna hobetzeko.
- 1.5. Irakaskuntzako, ikerketako eta kudeaketako materialak sortzea sustatzea, batez ere material horiek euskaraz sortzeko.

2.- Aldez aurretik egindako analisisia egoera ezagutzeko

2.1.- Irakasleek prestakuntzaren eta garapen profesionalaren arloan dituzten premiei buruzko txostena (2019-2021)

Txostena 2019an egin zen oinarri hartuta fakultateko irakasle guztiei bidalitako inkesta (inkesta erdiegituratu eta irekia): 27 irakaslek bete zuten.

Hauek dira baliorik aipagarrienak:

- Adierazi zein heinean ikastaroetan parte hartzea honakoen menpe egongo den (lehentasun handia %tan)

1. Eskaintzen direnean behar den aurrerapenarekin nire lanak antolatzeko	%92,6
2. Eskaintzen direnean azterketa aldian	%44,4
3. Eskaintzen direnean eskola aldian	%37,0

- Adierazi prestakuntza ikastaroan parte hartzeko daukazu interesa irakaskuntza garatzekoak direnean (interes maila handia %tan)

1. Taldea dinamizatzea	%48,1
2. Metodologia aktiboak: proiektuetan oinarrituta metodoa	%40,7
3. Metodologia aktiboak: kasuetan oinarrituta metodoa	%37,0

Iradokizun batzuk:

Dozentiaz programak zein indikadoreei edo eragileei ematen dion lehentasuna nahiko nuke jakin

Eztabaidak gelan egitearena. Publikoan hitz egiteko trebeziak.

- Adierazi prestakuntza ikastaroan parte hartzeko daukazu interesa ikerketa jarduna garatzekoak direnean (interes maila handia %tan)

1. Non argitaratu, inpaktua nola neurtu	%44,4
2. NVivo softwarea ikerketa kualitatiborako	%33,3
3. Aurkezpenak egitea	%29,6

- Adierazi prestakuntza ikastaroan parte hartzeko daukazun interesa kudeaketa jarduna garatzekoak direnean (interes maila handia %tan)

Agenden eta egutegiaren kudeaketa (smartphonetan eta webgunean)	%40,7
Informazioaren kudeaketa (gScholar, bilaketa aurreratuak, alertak, RSS)	%33,3
Euskararen erabileraren kudeaketa hobetzeko teknikak	%29,6

Oro har, honakoak dira txostenean hobetu beharrekotzat jo dituzten arloak:

1. Ampliar horarios de formación, facilitar la asistencia para que no coincida con docencia.
2. Considero necesario enfocar la formación hacia "El papel de las personas en las organizaciones: trabajo en equipo, liderazgo, dinámica de grupos, toma de decisiones, proyecto compartido." "la importancia de los valores en las organizaciones"
3. Dozentziarekin harremana badu, formakuntzaren zati bat ikasleekin beraiekin egitea.
4. Eskerrik asko ahaleginagatik!!!
5. Grabación y edición digital
6. Irakaskuntza prozesua gaitasunetan garatzeko lan-talde koordinatuak osatzeko irizpideak finkatzen ikasteko formazioa.
7. Utilización de software de análisis cualitativo (AtlasTi, u otros) aplicado al estudio de bibliografías. Análisis de redes, con manejo de su software específico.
8. Me parece fundamental que se avise con más tiempo que en la convocatoria anterior.
9. Es mejor hacer cursos de corta duración que nos permitan más flexibilidad a la hora de asistir, ya que cuando son varias sesiones, a veces, es complicado asistir a todas.
10. Ofertar pocos cursos cada vez, para así promover la participación en estos, en lugar de demasiados cursos en un mes.

2.2.- Fakultatean ikerketak daukan egoerari buruzko txostena

Fakultateko ikerketaren egoerari buruz egindako txostenaren arabera, diagnostikoari buruzko elementu garrantzitsu batzuk aipa daitezke:

- Ikerketan ari diren irakasleen proportzioa ez da nolana hikoia. Nahiz eta litekeena den batez besteko ikerketa jarduera beste fakultate batzuen

baino txikiagoa izatea (lehengo Lan Harremanen Eskolaren kasurako aurreko errektoreak zioenez), bada ikerketa jarduera nabarmen bat, eta horrek esan nahi du promozioa ez dela hutsetik hasi behar, eta irakasle batzuk oso esperientzia euskarri baliotsua eraiki dezakeela gainerakoentzat.

- Aurrekoa gorabehera, nabarmena da hobetzeko tarte handia dagoela, hau da, uste dugu 1. taldean –Ez dute ikertzen–, 2. taldean –Intentsitate txikia– eta 3. taldean –Intentsitate ertaina– (ikus 1. irudia) dauden irakasleei zuzendutako estimulu egoki batek arrakasta izan dezakeela eta fakultateko ikerketa intentsitatea, oro har, handitu dezakeela. Hala ere, horretarako taldeak hobeto ezagutu behar dira, jakiteko, adibidez, ikerketan sakonago aritzeko gogoia duten ala ez.
- Ikerketa jarduera zertxobait handiagoa da gizarte lanean lan harremanetan baino, baina ez dago alde handirik.
- Genero joera nahiko argia dago, eta horri buruz gehiago ikertu eta hausnartu beharko litzateke.
- Egiaztatzen dugu gure ikastegietan ez dagoela unibertsitateko katedradunik ikerketa jarduera bultzatzen duenik eta ikertzaileak harreman sareetan txertatzen laguntzen duenik.
- Irakasle doktore kontratatuen eta irakasle agregatuen artean ikerketa intentsitate handiagoa dago, eta ondoren, eskolako katedradunak eta unibertsitateko titularrak daude; irakasle laguntzaileak eta elkartuak dira intentsitate txikiena dutenak, baina unibertsitate eskolako irakasle titularren artean ere hobetzeko tarte interesgarria dagoela dirudi.
- Sailei dagokionez, oraingoz, bi elementu ikus ditzakegu: lehenik eta behin, sail handienen barruan, erreferentziazko osaera logikoenak ikerketako proportzio handi samarra edo oso handia izan beharko luke (% 30-40), irakasle gehienek (% 50-60) intentsitate ertaina izan beharko lukete, eta proportzio txikiago bat (% 20-30), berriz, ikerketa jarduerarik gabea edo ikerketa gutxirekin. Ekonomia Aplikatua I saila planteamendu horretan sartuko litzateke (alde positiboan), nahiz eta Soziologia eta Gizarte Langintza sailak, ugariena, intentsitate txikiko taldea gutxitu (8 edo 10 puntu inguru) eta tarteko maila neurri berean handitu beharko lukeen erreferente ona izateko.

Bigarrenik, horrenbeste sail txiki izanik eta bi ikastegitan banatuta -bakoitza bere graduaren arabera berezita eta bata bestearengatik urrunduta-, gogoeta egin beharko genuke gure fakultatean ikerketaren sustapena neurri handi batean sailez eta diziplinaz gaindikoa izan beharko litzatekeen zehazteko, hau da, postulatu, metodologia eta gai desberdinetatik ikertzen ikasi behar ote dugun (eta zelan) zehazteko, eta egoera horretatik abiatuta gure diagnostiko eta proposamenak aberastu.

3. Prestakuntza ereduak:

Gure prestakuntza ereduak oinarri dauka IKDren irakaskuntza-ikaskuntza kooperatibo eta dinamikoa, metodologia aktiboen bidez garatua.

Fakultatearen prestakuntza ereduak definitu dugu, kontuan hartuta planteatzen diren helburuak eta ikastegietako irakasleen aldetik jasotako balorazioak. Horrela, honako ezaugarriak dituen ereduaren alde egiten dugu:

1. Orokorra izatea eta irakasleen jarrerak, gaitasunak eta ezagutzak hobetzeko estrategiak jasotzea.
2. Etengabeko hobekuntzaren printzipioetan oinarrituta egotea.
3. Gure errealitatean eta aukeretan oinarrituta egotea.
4. Proiektu iraunkorra izatea.
5. Irakaskuntza, ikerketa eta kudeaketa esperientzien, esperientzia berritzaileen eta kalitate esperientzien bidezko irakaskuntzan oinarritua izatea.

Programek jarraitasuna izatea gure hezkuntza komunitateko kideen disponibilitate eta parte hartzearen menpe egongo da beti, baita UPV/EHUK emandako baliabideen menpe ere, ikastegiak ez baitu horretarako baliabide ekonomiko propiorik.

4. Prestakuntza ardatzak:

Jarduerak lau kategoriatan banatuta daude, betiere, kontuan hartuta ikastegiko ezagutza eremuak:

1. Irakaskuntza:

- a. esperientzia berritzaileak
- b. teknologia berriak irakaskuntzari ezarriak
- c. metodologia berriak
- d. Material didaktikoak
- e. komunikazio hezitzailea
- f. ikaskuntzaren ebaluazioa.
- g. irakaskuntzaren ebaluazioa
- h. beste batzuk.

2. Ikerketa:

- a. ikerketa metodologia
- b. bibliografia baliabideak
- c. Dokumentazioa bilatzea
- d. argitalpenak aldizkarietan
- e. ekoizpen tekniko-zientifikoaren zabalkundea
- f. Inpaktu indizeak
- g. ikerketako editoreak eta erakundeak
- h. ikerketa identitateak
- i. beste batzuk.

3. Kudeaketa:

- a. informazioaren kudeaketa (gScholar, bilaketa aurreratuak, alertak, RSS)
- b. atazen kudeaketa (gTask, Evernote, Delicious, Diigo...)
- c. agendak eta egutegiak (smartphonetan eta web-ean)
- d. Kalitatearen kudeaketa
- e. sareetan txertatutako gestio elementuak
- f. beste batzuk.

5. Prestakuntza programak:

Ikastetxean edozein irakasleren ekimenez abiaraziko diren programek honako alderdi hauek izan beharko dituzte kontuan:

Ikastegiak konpromisoa hartzen du tokiko, estatuko eta nazioarteko jardunaldi zientifikoak eta kongresuak antolatzeke, pertsona garrantzitsuak, gure diziplinetan berritzaileak direnak eta gure irakasleak ezagutzeko jarrera irekia dutenak erakartzeko.

Honako hauek izango dira urteko gutxieneko prestakuntza konpromisoak:

- Atalean, Prestakuntza Jardunaldia eta Topaketa
- Atalean, Gizarte Langintzako Jardunaldia
- Egoitzan, lan eta gizarte arloko aholkulari profesionalen topaketa

- Egoitzan, Lanaren eta Gizarte Segurantzaren Zuzenbideari buruzko Jardunaldiak
- Egoitzan, Diziplina Arteko Jardunaldia

Era berean, ikastegiak laguntza emango du UPV/EHUK bere Irakaskuntza Ebaluatzeko Zerbitzuaren bidez eskaintzen dituen beste programa batzuetan parte hartzeko, hala nola Doitu, Eraiker eta Gaituz programetan eta FOPU programako iraupen laburreko ikastaroetan. Horretarako, irakasleei laguntza emango die programa horietara joateko, eta haien eskura jarriko ditu programa horiek eraginkorrak izateko behar dituzten baliabideak. Era berean, irakasle guztiak G9 Unibertsitate Taldeak eskaintzen dituen ikastaroetan izena ematera bultzatzen ditugu.

Prestakuntza talde finkatuetan parte hartzen duten eta talde horietatik datorren prestakuntzan parte hartzeko aukera dutenek ikastegiaren babesa izango dute talde horietan parte hartzeko.

Ikastegiak konpromisoa hartzen du GEZKI, Parte hartuz eta Hegoa Institutuko ikertaldeen jarduerak eta jardunaldiak zabaltzeko, eta koordinatzeko gure fakultatean antolatzen direnean.

Jardunaldi eta biltzarretan parte hartzearen ondorio den prestakuntzarako UPV/EHUko arlorako daukan araudiari jarraitu beharko zaio eta horretarako dagoen aplikazioaren bidez egin beharko da:
<https://egoitza.ehu.eus/egoitza/fitxa?codProcedimiento=8>

6.- Egiatagiria.

Ikastegitik egiten dituen ikastaro guztiek egiatagiria izango dute, baldin eta jardueran parte hartzeko ikastaroa koordinatzen duen pertsonak zehaztutako baldintzak bete badira.